

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa. Onestea alda dadila 67/2010 Foru Dekretua, arautzen duena Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan eskaintzen diren zerbitzu eta jarduerengatik ordaindu behar diren prezio publikoen araudia**

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Foru Gobernu Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

67/2010 Foru Dekretuaren bidez, abenduaren 30eko Foru Gobernu Kontseiluarena, Gazteriaren Foru Erakundeak aterpetxeetan emandako zerbitzu eta jardueren prezio publikoen arautegia onartu zuen. Dekretu horren bigarren Eranskinean, aplikatu beharreko prezio publikoak jasotzen dira.

Horregatik guztiagatik, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2024ko abenduaren 10ean, ondokoak proposatu ditu: eta arau horren II. eranskinean jasotako prezio publikoak aldatzea ere.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Kultura eta Kiroleko diputatuak eta bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak batera proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 67/2010 Foru Dekretuak, Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan zerbitzuak eta jarduerak emateagatik prezio publikoen araudia arautzen duenak, onartutako prezio publikoak aldatzea. Aldatutako prezioak foru dekretu honen I. eranskinean agertzen dira.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hirugarrena. Araudi berri hau ALHAOn argitaratzeko agindu da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 16a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA MARÍA DEL VAL SANCHO**

*Finantza eta Aurrekontu zuzendaria*

**IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAECHEA**

*Kirol zuzendaria*

**JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN**

**I. ERANSKINA**

Arabako Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeak erreserbatu eta erabiltzeagatik eta bertako zerbitzuengatik eska daitezkeen prezio publikoak.

Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan zerbitzuak emateagatik prezio publikoen tarifak honako hauek izango dira:

PREZIO PUBLIKOAK			
ZERBITZUAK	ITUNDUA GAZTEAK	ARRUNTA	
		GAZTEAK	HELDUAK
Pentsio osoa	26,00	32,25	42,00
Bazkaria	9,50	10,10	12,00
Afaria	9,50	10,10	12,00
Ostatua eta gosaria	15,00	19,50	25,00
Izarak alokatzea	4,00	4,00	4,00
Instalazioak erabiltzea, hitzartutako orduetatik kanpo	Gutxieneko fakturazioa 3,00 euro pertsonako eta eguneko, 12 pertsona arteko taldeentzat edo 50,00 euro 12 pertsona baino gehiagoko talde bakoitzeko		
Zerbitzu bereziak	Fakturazioa, kostuaren arabera		